BERRIA (Contra portada) 2012ko Urriak 3

© Olariaga



Achim Heinkel eta Roland Ruisz alemaniarrek erakusketa bat jarri dute Gernika-Lumon. Aurten Bizkai eta Gipuzkoan bizikletaz egindako bidaian sortu dituzte artelanok.

Bi gurpilen gaineko artea

Lander Muñagorri Garmendia

Txirrindularitza artearekin elkartzea ez da ohikoena. Eta hori erakusketa batean gauzatzen baldin bada, bitxikeria bihurtzen da. Alemaniako Achim Heinkel zilargileak eta Roland Ruisz margolariak bi diziplina horiek elkartu dituzte, eta Gernika-Lumoko (Bizkaia) Elai-Alai aretoan jarri dituzte euren artelanak. Aurtengo udan, bizikletak hartu eta 1937an Kondor legioak bonbardatu zituen herriak bisitatu zituzten. Gernika-Lumo abiapuntutzat hartu, eta Otxandio, Durango, Eibar, Ermua, Markina eta Elgetan ibili ziren hiru egunez. Bidean, geldialdiak egiten zituzten, Ruiszek koadroak margotzeko, eta Heinkelek argazkiak ateratzeko. «Tailerra gainean eraman ezin zuenez, argazkiak atera zituen, ondoren etxera itzultzean zilarraren gainean lantzeko», Andreas Schafter Gernika Gogoratuz elkarteko kidearen esanetan. Era horretan osatu dute urriaren 18ra arte erakusgai egongo den erakusketa hori.

Bi egileak Pforzheimekoak (Alemania) dira sortzez, 1989az geroztik Gernika-Lumorekin senidetuta dagoen herrikoak, hain zuzen ere. Ez da lehen aldia Bizkaiko herri horretara bisita egiten dutena, ezta bizikletaz egin duten lehena ere. Izan ere, 1988. urtean bi herriak bizikletaz batu zituzten Gernikako txirrindulari elkarteko kide batzuek eta Ruiszek, besteak beste. Hurrengo urtean egingo zen senidetzan sakontzeko abentura bat izan zen, eta 1989an kontrako noranzkoan egin zuten bidaia. Hogei urte geroago, 2009an, Pforzheim eta Gernika-Lumo arteko bidea bizikletaz egin zuten berriz ere. Orduko hartan, Ruiszekin batera zegoen Heinkel bera ere. Eta duela hiru urteko bidaia hartan ere, margolanak pintatzeko geldialdiak egin zituzten. Lan horiekin, erakusketa jarri zuten Gernika-Lumon. «Uda honetan egin duten proiektua osatzeko abiapuntua izan zen bidaia hura», Schafterren esanetan.

2009. urtera arte, Pforzheim eta Gernika-Lumo elkartzeko hiru bidaia egin zituzten bi herrietako biztanleek. Aurten, baina, ez da egin horrelako ezer. Bonbardeketetatik 75 urte igaro dira, eta, hori aprobetxatuz, Bizkai eta Gipuzkoa inguruko herrietan ibili dira bi artista alemaniarrak, Gernikako txirrindulari elkarteko kideekin. «Beste herri batzuetara ere joan ziren, gisa horretan onartzeko beste herri batzuek ere sufritu zutela».

Gogoetarako artelanak

Elai-Alai aretoan jarrita dagoen erakusketan iragana eta oraina uztartuko dituzte, bakearen eta memoria historikoaren inguruko gogoeta bultzatzeaz gain. Horretarako, Heinkelek egin dituen zilarrezko lanek kaiku bikoitzen itxura daukate, «bakea eta historia zaintzearen eta babestearen artean dagoen lotura sinbolizatzeko». Hau da, oreka etengabean bilatzen aritzea litzateke zilargilearen asmoa.

Ruiszek, bestalde, bonbardaketetako irudiak gaur egungoekin tartekatu ditu. Horretarako, kolore ezberdinak erabili ditu: iraganekoak marrazteko, nazien banderako koloreak erabili du, «gorria zerua marrazteko, handik erori baitziren sarraskia eragin zuten bonbak»; gaur egungo koadroak egiteko, berriz, ikurrinaren koloreak eta ortzadarraren koloreak aukeratu ditu. «Lan horiek eginda, Ruiszen asmoa da gertatutakoa ez errepikatzea, erantzukizuna hartzea orainaldiari begira», zehaztu du Schafterrek.



Elai-Alai aretoan daude Achim Heinkel eta Roland Ruiszen lanak. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

berria
Asteazkena 2012ko urriaren 3a



Metamorfosiak

Lausanne. 1928. Skira editoreak nahi du absolutuki Picassok ilustra diezaion sortu berri duen argitaletxeko lehen liburua. «Akort», dio Picassok. Ordea zein liburu hauta? Gauzak horrela, hona non pintoreak ametsetan ikusten dituen arrain bilakatzen ari diren emazteak. Ametsa Pierre-ri, Henri Matisse-ren semeari kontatzen dio eta honek dio orduan Ovidioren *Metamorfosiak* ilustratzeko ideia ematen. Lehen bi grabatuak 1930ko irailean ja bukatuak ziren: Orfeoren heriotzaz. Urriaren 25ko hogeita zazpi akuaforteak eginak zituen. Hamabost hautatuko dira, *Metamorfosiak* dituen «liburu» bakoitzarentzat bat. 1931ko urriaren 25a: liburua Picassoren 50 urteen betetze egunean kaleratzen du Skirak. 2012ko iraila: Chêne argitaletxeak edizio mitiko horretaz egin dituen berrargitalpenak (2008), Pariseko Pinakotekan 5 eurotan daude salgai merkealdian. «Jendeak ez ditu erosten...» dio hango liburutegiko saltzaileak, deblauki. Ez dut ulertzen badaitekeenik ere horrelakorik... Ilustrazioen finezia eta poesia: «Jupiterren eta Semeleren arteko amodioak», «Herkules eta Nezo zentauroa», «Euridize suge batek sistatu zuenean», «Faetonen erortzea Eguzkiaren karroarekin»... Skiraren edizioa artista-liburuetan (*livre d'artiste*) kataloga dezakegu (eta ez *Artist Book*-etan, besteak beste, artistak osoki konzebitzen dituen liburuak direlako hauek, eta testuak ez duelako inportantzia berezirik). *Metamorfosiak* ilustratzen duelarik aldiz Picassok, hurbiletik du segitzen Ovidio. Ale guti atera zituen Skirak, eta osoki inplikatu ziren lanean bera editore bezala, Picasso eta inprimatzailea. Eta ametsen bidez: Ovidio eta Picasso.